

4.3. ETXEBIZITZA ALOKAIURUA ORDAINTEZKO GAZTEEI ZUZENDUTAKO DIRULAGUNTZA DEIALDIA.	4.3. CONVOCATORIA DE SUBVENCIONES A JÓVENES PARA EL PAGO DE ALQUILER DE VIVIENDA.
1. Xedea	1. Objeto
Dirulaguntza hauen xedea da Arrasateko 18-35 urte bitarteko gazteei etxebizitza alokairua ordaintzen laguntzea, emantzipazio bidean laguntzeko eta etxebizitza alokairua sustatzeko.	El objeto de estas subvenciones es ayudar a pagar el alquiler de vivienda a jóvenes de Arrasate, de edad comprendida entre 18 y 35 años, para ayudarles en su proceso de emancipación, y promover el alquiler de vivienda.
2. Bete beharreko baldintzak.	2. Requisitos a cumplir.
2.1. Gaztelagun programa.	2.1. Programa Gaztelagun
Eusko Jaurlaritzak Gaztelagun programaren bidez etxebizitza alokatzeko dirulaguntzak ematen dituzenez, dirulaguntza horiek jasotzeko baldintza guztiak betetzen dituztenek ez dute jasoko Arrasateko Udalaren deialdi honetan araututako dirulaguntzarik.	Dado que el Gobierno Vasco subvenciona el alquiler de vivienda a través del programa Gaztelagun, quienes cumplan todos los requisitos para acceder a dichas subvenciones, no tendrán acceso a las reguladas en esta convocatoria del Ayuntamiento de Arrasate.
Pertsona batek dirulaguntza eskatzen badu Gaztelagunera eta ukatzen badiote, dirulaguntza eskatu ahal izango dio Arrasateko Udalari. Kasu horretan, aurkeztu beharko ditu Gaztelagun ezesteko ebazpena eta deialdi honetan eskatutako gainerako dokumentazioa	Si una persona solicita la subvención de Gaztelagun y le es denegada, podrá solicitar la subvención al Ayuntamiento de Arrasate. En este caso, deberá presentar la resolución denegatoria de Gaztelagun, además de documentación exigida en la presente convocatoria.
2.2. Alokairuaren inguruko baldintzak.	2.2. Requisitos relativos al alquiler.
Alokaturako etxebizitza eskatzaileen ohiko egoitza izan behar da eta alokairu kontratuak gutxienez 12 hilabeteko iraupena izan beharko du; tarte horretan, gainera, deialdi hauetan zehaztutako baldintza guztiak mantendu beharko dira.	La vivienda alquilada deberá ser la residencia habitual de las personas solicitantes y el contrato de alquiler deberá tener al menos una duración de 12 meses; en dicho periodo de tiempo, además, deberán mantenerse todas las condiciones especificadas en la presente convocatoria.
Etxebizitza alokairuaren prezioa, gehienez, hileko 750 € izango da, eranskinak barne.	El precio del alquiler de la vivienda, como máximo, será de 750 €, incluidos los anexos.
Alokairutik edo diruz lagundu daitekeen kontzeptutik kanpo geldituko dira garaje, komunitate eta administrazioko gastuei dagozkienak, bai eta kontribuzio edo zerga kontzeptupean sor daitezkeenak ere, dagokion kontratuan berariaz sartuta egonda ere.	Quedarán fuera del alquiler y de los conceptos subvencionables el garaje, los gastos de comunidad y los de administración, así como los que puedan generarse en concepto de contribución o impuestos, incluso en el caso de que fueran incluidos expresamente en el contrato correspondiente.
Alokairuko hileko kuotatik 30 euroko zenbateko finko bat kenduko da, aurreko paragrafoan deskribatutako garaje edo komunitate gastuengatik, alokairu kontratuan sartuta badaude, eta ez bada aurkezten horietako bakoitzaren hileko kostuaren berariazko justifikaziorik.	De la cuota mensual del alquiler se restará un importe fijo de 30 euros por los gastos de garaje o comunidad descritos en el párrafo anterior, si estuviesen incluidos en el contrato de alquiler y si no se presentase justificación expresa del coste mensual de cada uno de ellos.
2.3. Eskatzaileek bete beharrekoak.	2.3. Requisitos a cumplir por las personas solicitantes.

Bi modutan eskatu daitezke laguntzak: norbanako gisa edo bizikidetzaren unitate gisa.	Estas ayudas pueden solicitarse de forma individual o como unidad de convivencia.
Bizikidetzaren unitategatik ulertuko da bikote bat, kide biak adinez nagusikoak (adin txikikoak euren kargura izan ala ez), edo pertsona bakarra adin txikikoak bere kargura dituenak.	En lo referente a estas subvenciones, se entenderá por unidad de convivencia una pareja (con o sin menores a su cargo), mayores de edad ambos, o bien una única persona con menores de edad a su cargo.
Bete beharreko baldintzak:	Requisitos:
a) Adina: 18 eta 35 urte bitarteko adina izatea.	a) Edad: tener una edad comprendida entre 18 y 35 años.
b) Errolda: Arrasaten erroldatuta egon izana azken 2 urteetan etenik gabe edo etenekin gutxienez 10 urtetan.	b) Empadronamiento: los dos últimos años de forma ininterrumpida, o haber estado empadronada en Arrasate durante 10 años.
Gutxienez bizikidetzaren unitateko pertsona batek bete behar ditu baldintza biak, adina eta errolda.	Al menos una de las personas de la unidad de convivencia debe cumplir ambos requisitos, edad y empadronamiento.
c) Eskatzaileek ez betetzea Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailak Gaztelagun programako alokairurako laguntzak jasotzeko eskubidea ematen duten baldintzak.	c) Que las personas solicitantes no reúnan las condiciones que den derecho a las ayudas al alquiler del programa Gaztelagun promovido por el departamento de Vivienda del Gobierno Vasco.
d) Etxebizitzaren jabetzarik ez izatea, ez eskatzaileak ezta bizikidetzaren unitateko kideetatik inork ere, herentzia edo dohaintza bidez eskuratutako etxebizitzaren titularkide diren kasuetan izan ezik, baldin eta titular kidetasun horren portzentajeak ez badu %50 gainditzen eta etxebizitzetako partaidetzen balio katastrala 75.000 €-tik gorakoa ez bada.	d) Ni la persona solicitante ni ninguno de los miembros de la unidad de convivencia podrán tener vivienda de su propiedad, excepto en los casos en que sea cotitular de una vivienda obtenida por herencia o donación, siempre que el porcentaje de cotitularidad no supere el 50% y el valor catastral de la participación de la vivienda no sea superior a 75.000 €.
Hala ere, laguntza eskatu ahal izango dute etxebizitza baten jabe %50ean baino gehiagoan diren herritarrek, baldin eta etxebizitza hori legez erabili ezin badute, egoera berezi bategatik.	No obstante, podrán solicitar la ayuda las personas que sean propietarias de una vivienda en más del 50%, si no pudieran utilizar legalmente dicha vivienda por encontrarse en una situación excepcional.
e) Alokaturako etxebizitzan bizi diren pertsona guztiak bertan erroldatu behar dira eta datu hau egiaztatuko da dirulaguntza jaso baino lehen. Halaber, erroldatuta baleude jada bertan bizi ez diren pertsonak, etxebizitzaren jabeak eskatu beharko du euren baja erroldan.	e) Todas las personas que residan en la vivienda de alquiler deberán empadronarse en ella y este dato se verificará antes de percibir la subvención. Asimismo, en caso de que estuviesen empadronadas personas que ya no residen en la vivienda, el propietario o propietaria deberá solicitar su baja en el padrón.
f) Diru sarrerak gehienez ere ondorengoak izan ahalko dira:	f) Los ingresos podrán ser como máximo:
<ul style="list-style-type: none"> • 29.000 € gordin urtean eskatzailea norbanakoa bada. 	<ul style="list-style-type: none"> • 29.000 € brutos al año, si es una solicitud individual.

<ul style="list-style-type: none"> • 40.000 € gordin urtean, eskatzailea bizikidetzat unitate bat bada. 	<ul style="list-style-type: none"> • 40.000 € brutos al año, si la solicitud es de una unidad de convivencia.
g) Diru sarreren osaketari dagokionez, ezin izango da urtean 600 €-tik gorakoa izan kapital errentetatik eratorritako errendimendu gordinen zenbatekoa, amaitutako azken zerga ekitaldiari dagokiona.	g) Respecto a la composición de los ingresos, no podrá ser superior a 600 € anuales la cuantía de los rendimientos brutos procedentes de rentas de capital del último ejercicio fiscal vencido.
h) Ez dira onartuko dirulaguntza programa honen bidez sustatu nahi den helburuekin bat ez datozen eskaerak.	h) No se admitirán solicitudes que no se ajusten a los objetivos para los que se solicita la subvención a través de este programa.
Edozein kasutan, arrazoi honengatik onartu gabeko eskaerak dagokion sailari helaraziko zaizkio, interesatuari egoera horren berri emanez.	En todo caso, las solicitudes denegadas por este motivo serán remitidas al Departamento correspondiente, comunicando tal circunstancia al interesado.
i) Etxebizitza partekatzen duten gazte guztiak izan daitezke onuradun, baldin eta denek sinatzen badute alokairu kontratua eta betetzen badituzte gainontzeko baldintza guztiak. Kasu honetan, eskaerak banaka aurkeztuko dira eta alokairuaren prezioa konputatuko da kontratua sinatu duten guztien artean hainbanatuta.	i) Pueden ser beneficiarias todas las personas que compartan la vivienda, si son cotitulares del contrato de alquiler y si cumplen todos los demás requisitos. En este caso, las solicitudes se presentarán individualmente y el precio del alquiler se prorrateará.
j) Laguntzaren onuradun guztiek egunera izan behar dute Arrasateko Udaleko zerga, tasa eta zehapenen ordainketa.	j) Todas las personas beneficiarias de la ayuda deberán estar al día en el pago de tasas, sanciones e impuestos municipales.
k) Ezin izango da familia loturarik izan onuradunaren eta errentatzailearen artean, odolkidetasun edo ahaidetasuneko bigarren mailaraino.	k) No podrá haber vínculo familiar entre las personas beneficiarias de la subvención y la parte arrendataria, hasta segundo grado de consanguinidad o parentesco.
2.4. Etxebizitzek bete beharreko baldintzak.	2.4. Requisitos que deberán cumplir las viviendas.
Alokatutako etxebizitzek Arrasateko udalerrian kokatuta egon behar dute eta dagokien bizigarritasun baimena izan. Horrez gain, ondorengo baldintzak izan behar dituzte:	Las viviendas alquiladas deberán estar ubicadas en el municipio de Arrasate y disponer de la correspondiente autorización de habitabilidad. Además, habrán de cumplir los siguientes requisitos:
a) Erabiltzeko moduan dagoen sukaldia, elikatze iturri elektrikoa edo gasezkoa duena, eta behar bezala hornitua.	a) Cocina en estado de uso, con fuente de alimentación eléctrica o de gas adecuadamente equipada.
b) Dutxa edo bainuontzia duen bainugela.	b) Cuarto de baño con ducha o bañera.
c) Erabiltzeko egoeran dagoen ur bero sistema, bainugelara eta sukaldia zerbitzuarekin.	c) Sistema de agua caliente en estado de uso, con servicio al cuarto de baño y a la cocina.
d) Erabiltzeko egoeran dagoen 220 volt-eko instalazio elektrikoa, dagokion buletinarekin.	d) Instalación eléctrica en uso a 220 voltios, con su boletín correspondiente.
e) Ur edangarriaren hornidura.	e) Suministro de agua potable.
f) Sare orokorrera isurketa duen saneamendua.	f) Saneamiento con vertido a la red general.

g) Kalerako aireztatzea.	g) Ventilación a la calle.
3. Baztertzeak.	3. Exclusiones.
Dirulaguntzaren esparrutik kanpo geldituko dira ondoko egoera hauetan aurkitzen diren etxebizitzak:	Quedarán fuera del ámbito de subvención las viviendas que se encuentren en alguna de las siguientes circunstancias:
a) Babes publikoko etxebizitzak.	a) Viviendas de protección pública.
b) Bizigune programaren barruan alokatutako etxebizitzak.	b) Viviendas alquiladas dentro del programa Bizigune.
c) Logelen alokairuak.	c) Alquiler de habitaciones.
d) Etxebizitza gisa erabilitako lokalak.	d) Locales utilizados como vivienda.
e) Hilean 750 €-ko zenbatekoa gainditzen duten alokairuko etxebizitzak.	e) Viviendas de alquiler que superen el importe de 750 € mensuales.
f) Urte bete baino iraupen txikiagoa duten alokairu kontratuak.	f) Contratos de alquiler de duración inferior a un año.
4. Izapidetzeaz arduratzen den administrazio unitatea.	4. Unidad administrativa encargada de la tramitación.
Gazteriaren administrazio unitateak izapidetuko ditu eskaerak.	Las solicitudes serán tramitadas por la unidad administrativa de Juventud.
5. Aurrekontua.	5. Presupuesto.
Programa honen bidez deitutako dirulaguntzen zenbatekoa 5.000 € da, eta "1.0410.480.152.01.01 Gazteen etxebizitza alokairu laguntzak" kontu sailaren kontura finantzatuko da.	El importe de las ayudas convocadas a través del presente programa asciende a la cantidad de 5.000 €, y será financiado con cargo a la partida presupuestaria "1.0410.480.152.01.01 Subvenciones a jóvenes para alquiler vivienda".
Ezarritako diru kopurua agortutakoan bukatutzat emango da programa, udalak propio erabaki ezean kreditua handitzea.	El programa se dará por concluido cuando su consignación presupuestaria se agote, a no ser que el Ayuntamiento expresamente decida aumentar dicho crédito.
6. Aurkeztu beharreko agiriak	6. Documentación a presentar
Agiri hauek aurkeztu beharko dira laguntza eskatzeko:	Para solicitar estas ayudas, deberá presentarse la siguiente documentación:
a) Eskabide-orria, behar bezala beteta eta sinatuta.	a) Impreso de solicitud, debidamente cumplimentado y firmado.
b) Nortasun Agiriaren edo egoitza txartelaren fotokopia, laguntza eskaeran sartzen diren pertsona guztiena.	b) Fotocopia del DNI o tarjeta de residencia de cada una de las personas incluidas en la solicitud de la ayuda.
c) Familia Liburuaren fotokopia ere aurkeztu beharko da adin txikikorik balego edo senidetasuna egiaztatzeko.	c) Fotocopia del Libro de Familia en caso de haber menores de edad, o para acreditar la filiación.

d) Etxebizitzaren alokairu kontratuaren kopia, indarrean dagoena eta diruz lagundu daitekeen epe barnekoa.	d) Copia del contrato de alquiler de la vivienda, vigente y dentro del plazo subvencionable.
e) Bankuko kontuaren titularitatea egiaztatzen duen agiria.	e) Documento acreditativo de la titularidad de la cuenta bancaria.
f) Ziurtagiria, estatuan etxebizitza baten jabe ez izatearena, laguntzaren onuradun guztiena, jabetza erregistroak emana, udalak laguntza eman ondoren.	f) Certificado de no disponer de vivienda en propiedad a nivel estatal de todas las personas beneficiarias de la ayuda, emitido por el registro de la propiedad en fecha posterior a la concesión de la ayuda.
g) Etxebizitza baten titularkide izanez gero, aurkeztu beharreko agiriak:	g) Quien sea cotitular de una vivienda, deberá presentar la siguiente documentación:
- Herentzia kasuan, herentziaren onarpen agiria eta etxebizitza partaidetzaren eskritura.	- En caso de herencia, aceptación de herencia y escritura de participación.
- Dohaintza kasuan, dohaintza eskritura.	- En el caso de donación, escritura de donación.
h) Bizikidetzaren unitateko kide guztien urteko diru sarreraren egiaztapenak:	h) Documentos acreditativos de los ingresos anuales de todos los miembros de la unidad de convivencia:
• Lan-bizitzari buruzko ziurtagiria, Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiak igorria.	• Certificado de la vida laboral, expedido por la Tesorería General de la Seguridad Social.
• Azkeneko 12 hilabeteetako diru sarreraren frogagiriak.	• Justificantes de los ingresos de los últimos 12 meses.
• PFEZ aitortzeko derrigortasuna duenak, honakoak aurkeztu beharko ditu:	• Quien tenga la obligación de declarar el IRPF:
- PFEZ aitortzearen fotokopia eta horren jatorrizkoa, biak erkatzeko, azken zerga ekitaldiari dagokiona.	- Fotocopia, junto al original para su cotejo, de la declaración del IRPF del último ejercicio fiscal vencido.
- Gainera zergapekoak ez diren prestazioak jasoko balira, prestazio horien ziurtagiria.	- En el caso de percibir, además, prestaciones no contributivas, certificado de las mismas.
• PFEZ aitortzeko derrigortasunik ez duenak:	• Quien no tenga obligación de declarar el IRPF:
- Kasu guztietan, PFEZ aitortzearen aurkezteko derrigortasunik ez izatea egiaztatzen duen ziurtagiria, Foru Ogasunak emana.	- En todos los casos, certificado expedido por la Hacienda Foral que acredite la no obligatoriedad de presentación de la declaración del IRPF.

<ul style="list-style-type: none"> - Kasu guztietan, kapital errendimendua egiaztatzekeo bankuko agiriak aurkeztu beharko ditu eskatzaileak, bera titularra den kontu guztiena. 	<ul style="list-style-type: none"> - En todos los casos, las rentas de capital se justificarán mediante certificado bancario de todas las cuentas de la persona solicitante.
<ul style="list-style-type: none"> - Besteren konturako langileen kasuan, kontzeptu guztiengatik jasotako diru sarrera gordin guztiei buruzko dokumentua, ekitaldi horri buruzkoa eta enpresak edo enplegu emaileak emandakoa. 	<ul style="list-style-type: none"> - En el caso de personas trabajadoras por cuenta ajena, documento sobre la totalidad de los ingresos brutos percibidos por todos los conceptos, correspondiente a dicho ejercicio y emitido por la empresa o parte empleadora.
<ul style="list-style-type: none"> - Pentsiodunen edo beka, prestazioak edo subsidioak jasotzen dituztenen kasuan (Gizarte Ongizateko laguntzak barne), ekitaldi honetako laguntza horien ziurtagiria. 	<ul style="list-style-type: none"> - En el caso de pensionistas o personas que perciban becas, prestaciones o subsidios (incluido todo tipo de prestación social), certificado de dichas ayudas correspondiente a dicho ejercicio.
<p>i) Administrazioarekin eta Gizarte Segurantzarekin bete beharrekoetan egunera dagoela egiaztatzea.</p>	<p>i) Acreditación de estar al corriente en el cumplimiento de las obligaciones con la Administración y con la Seguridad Social.</p>
<p>j) Zinpeko aitortpena, beste diru sarrera batzuk (zenbatekoa adieraziz) badaudela eta/edo beste erakundeetan dirulaguntza eskatu dutela adierazten duena. Besteak beste:</p>	<p>j) Declaración jurada de la existencia de otros ingresos (indicando el importe) y/o de haber solicitado subvención a otras instituciones; entre otros:</p>
<ul style="list-style-type: none"> - Etxebizitzarako Prestazio Osagarriaren (EPO). 	<ul style="list-style-type: none"> - Si es o no beneficiaria de la Prestación Complementaria de Vivienda (PCV).
<ul style="list-style-type: none"> - Arrasateko gizarte larrialdietako dirulaguntzak. 	<ul style="list-style-type: none"> - Ayuda de emergencia social de Arrasate.
<p>Udalak egiaztatuko ditu aitortpen hauek bere esku dituen datuen bidez.</p>	<p>El ayuntamiento comprobará estas declaraciones a través de los datos que obran en su poder.</p>
<p>Eskatzaileek berariazko baimena eman beharko diote Arrasateko Udalari, laguntzen onuradun izateko baldintza guztiak betetzen dituztela egiaztatzekeo, Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoko 6. artikuluan ezarritakoa betez. Erroldako datuak Udalak jasoko ditu zuzenean.</p>	<p>Las personas solicitantes deberán dar autorización expresa al Ayuntamiento de Arrasate para acreditar que reúnen todos los requisitos necesarios para ser beneficiarias de las ayudas, a tenor de lo establecido en el art. 6 de la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de protección de datos de carácter personal y garantía de los derechos digitales. Los datos de empadronamiento serán recabados directamente por el Ayuntamiento.</p>
<p>7. Eskaerak aurkezteko epea.</p>	<p>7. Plazo de presentación de solicitudes.</p>

Dirulaguntza eskatu ahalko da deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragartzen den hurrengo egunetik 2026ko azaroaren 30era arte.	Se podrá solicitar esta subvención desde el día siguiente a la publicación de la convocatoria en el Boletín Oficial de Gipuzkoa hasta el día 30 de noviembre de 2026.																																																												
Eskaera aurkeztuz gero deialdia Gipuzkoako Agiri Ofizialean iragartzen denetik BI HILEKO epearen barruan, laguntza atzeraeraginarekin onartu ahalko da 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera, baldin eta data horretarako alokairu kontratua sinatuta bazegoen.	Si se presenta la solicitud en un plazo inferior a DOS MESES a partir de la publicación de dicha convocatoria, se podrá aprobar la subvención con efecto retroactivo, desde el día 1 de enero de 2026, si para esa fecha el contrato de alquiler estaba ya suscrito.																																																												
Bi hileko epe hori behin gaindituta, laguntza lortu ahalko da eskaera egiten den hilabetetik aurrera (atzeraeraginik gabe).	Una vez vencido dicho plazo de dos meses, se podrá conseguir la ayuda desde el mes en que se presenta la solicitud (sin efecto retroactivo).																																																												
8. Akatsak zuzentzea.	8. Corrección de errores.																																																												
Eskaerak edo harekin batera doan nahitaezko dokumentazioak akatsen bat duenean edo osatu barik dagoenean, 10 eguneko epea izango dute interesdunek antzemandako akatsak zuzentzeko, Udalak egindako errekerimendua jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.	Cuando la solicitud o la documentación preceptiva que la acompaña tenga algún error o sea incompleta, se otorgará un plazo de 10 días, contados a partir del día siguiente al de la notificación del requerimiento, para subsanar los defectos detectados.																																																												
Emandako epea akatsak zuzendu barik igarotzen bada, dirulaguntza eskaera ez da onartuko, eta beste izapiderik gabe artxibatu egingo da prozedura.	Si transcurrido dicho plazo no se subsanan los defectos detectados, se tendrá por desistida la solicitud de subvención, procediéndose sin más trámite al archivo del procedimiento.																																																												
9. Dirulaguntzen zenbatekoa.	9. Importe de las subvenciones.																																																												
Dirulaguntzen zenbatekoa zehazteko kontutan hartuko dira diru sarrerak, ondoko taula honen arabera:	Para concretar el importe de la subvención, se tendrán en cuenta los ingresos, de conformidad con la siguiente tabla:																																																												
<table border="1"> <thead> <tr> <th>ESKATZAIL EA</th> <th>Diru sarrera gordinak</th> <th>Aloka iruaren %</th> <th>Gehienek o diru laguntza</th> </tr> </thead> <tbody> <tr> <td rowspan="5">Norbanakoa</td> <td>26.000,01-29.000</td> <td>20%</td> <td>100 €</td> </tr> <tr> <td>23.000,01-26.000</td> <td>30%</td> <td>150 €</td> </tr> <tr> <td>20.000,01-23.000</td> <td>40%</td> <td>200 €</td> </tr> <tr> <td>1.000-20.000</td> <td>50%</td> <td>250 €</td> </tr> <tr> <td rowspan="5">Bizikidetzaren unitatea</td> <td>35.000,01-40.000</td> <td>20%</td> <td>100 €</td> </tr> <tr> <td>30.000,01-35.000</td> <td>30%</td> <td>150 €</td> </tr> <tr> <td>26.000,01-30.000</td> <td>40%</td> <td>200 €</td> </tr> <tr> <td>1.000-26.000</td> <td>50%</td> <td>250 €</td> </tr> </tbody> </table>	ESKATZAIL EA	Diru sarrera gordinak	Aloka iruaren %	Gehienek o diru laguntza	Norbanakoa	26.000,01-29.000	20%	100 €	23.000,01-26.000	30%	150 €	20.000,01-23.000	40%	200 €	1.000-20.000	50%	250 €	Bizikidetzaren unitatea	35.000,01-40.000	20%	100 €	30.000,01-35.000	30%	150 €	26.000,01-30.000	40%	200 €	1.000-26.000	50%	250 €	<table border="1"> <thead> <tr> <th>SOLICITANTE</th> <th>Ingresos brutos</th> <th>% Alquiler</th> <th>Subv. máxima</th> </tr> </thead> <tbody> <tr> <td rowspan="5">Individual</td> <td>26.000,01-29.000</td> <td>20%</td> <td>100 €</td> </tr> <tr> <td>23.000,01-26.000</td> <td>30%</td> <td>150 €</td> </tr> <tr> <td>20.000,01-23.000</td> <td>40%</td> <td>200 €</td> </tr> <tr> <td>1.000-20.000</td> <td>50%</td> <td>250 €</td> </tr> <tr> <td rowspan="5">Unidad de convivencia</td> <td>35.000,01-40.000</td> <td>20%</td> <td>100 €</td> </tr> <tr> <td>30.000,01-35.000</td> <td>30%</td> <td>150 €</td> </tr> <tr> <td>26.000,01-30.000</td> <td>40%</td> <td>200 €</td> </tr> <tr> <td>1.000-26.000</td> <td>50%</td> <td>250 €</td> </tr> </tbody> </table>	SOLICITANTE	Ingresos brutos	% Alquiler	Subv. máxima	Individual	26.000,01-29.000	20%	100 €	23.000,01-26.000	30%	150 €	20.000,01-23.000	40%	200 €	1.000-20.000	50%	250 €	Unidad de convivencia	35.000,01-40.000	20%	100 €	30.000,01-35.000	30%	150 €	26.000,01-30.000	40%	200 €	1.000-26.000	50%	250 €
ESKATZAIL EA	Diru sarrera gordinak	Aloka iruaren %	Gehienek o diru laguntza																																																										
Norbanakoa	26.000,01-29.000	20%	100 €																																																										
	23.000,01-26.000	30%	150 €																																																										
	20.000,01-23.000	40%	200 €																																																										
	1.000-20.000	50%	250 €																																																										
	Bizikidetzaren unitatea	35.000,01-40.000	20%	100 €																																																									
30.000,01-35.000		30%	150 €																																																										
26.000,01-30.000		40%	200 €																																																										
1.000-26.000		50%	250 €																																																										
SOLICITANTE		Ingresos brutos	% Alquiler	Subv. máxima																																																									
Individual	26.000,01-29.000	20%	100 €																																																										
	23.000,01-26.000	30%	150 €																																																										
	20.000,01-23.000	40%	200 €																																																										
	1.000-20.000	50%	250 €																																																										
	Unidad de convivencia	35.000,01-40.000	20%	100 €																																																									
30.000,01-35.000		30%	150 €																																																										
26.000,01-30.000		40%	200 €																																																										
1.000-26.000		50%	250 €																																																										

Gutxienerako diru sarreretara iristen ez direnen eskaerak salbuesenez onartu ahalko dira.	Excepcionalmente, podrán aceptarse solicitudes de quienes no lleguen a los ingresos mínimos.
Dirulaguntza behin-behinekoz kalkulatu da, aurkeztutako dokumentuetan oinarrituta. Behin betiko laguntza zehaztu da errenta aitortzearen dokumentua behin ekarrita.	La subvención se calculará de forma provisional a partir de la documentación presentada. La subvención definitiva se establecerá una vez presentado el documento relativo a la declaración de la renta.
Gehienez 12 hilabeteko epealdi baterako izango da dirulaguntza; hurrengo urtean deialdia egiten bada, eskaera berri bat egin beharko lukete onuradunek laguntzak jasotzen jarraitzeko aukera izateko.	La subvención será para un periodo máximo de 12 meses; si el próximo año se realiza una nueva convocatoria, deberá realizarse una nueva solicitud para poder seguir optando a estas ayudas.
Laguntza hauek, gehienez ere, jaso ahalko dira hiru urtez.	Estas ayudas se podrán percibir un máximo de tres años.
10. Agiri justifikagarriak.	10. Documentación justificativa.
Behin dirulaguntza onartuta, dagozkion diru kopuruak jasotzeko, ondorengo egiaztatze agiriak aurkeztu beharko dira:	Una vez aprobada la subvención, para cobrar las cantidades correspondientes, deberá presentarse la siguiente documentación:
a) Alokairuaren hileko ordainketa agiriak.	a) Justificantes de los pagos de las mensualidades del alquiler.
b) Azken ordainketa gauzatu aurretik, onuradunek aurkeztu beharko dituzte deialdi honen 6. klausularen "h" atalean azaltzen diren dokumentu eguneratuak.	b) Para el abono del último pago de esta subvención, deberán presentarse los documentos actualizados que se indican en el apartado "h" de la cláusula 6 de esta convocatoria.
Laguntza eskatu zenetik aldaketaren bat izan bada bete beharreko baldintzetan, aldaketa horri dagokion dokumentazio berria aurkeztu beharko da (Bete beharreko baldintzak deialdi honetako 2. Klausularen 2.3. puntuan jasota daude).	Si desde que solicitó la subvención hubiera habido variaciones respecto al cumplimiento de los requisitos, deberá presentar la documentación correspondiente a dichas variaciones (Los requisitos se detallan en el punto 2.3. de la cláusula 2 de esta convocatoria).
Aurkeztutako dokumentazio berria aztertuta:	Una vez analizada la nueva documentación:
- Kasua balitz, dirulaguntzaren zenbatekoa birkalkulatu egingo da.	- Se recalculará el importe de la ayuda, si procede.
- Jada onuradunak baldintzak beteko ez balitu, dirulaguntza zuritu egingo litzateke, baldintzak betetzen zituen azken hilekoaren ordainketarekin. Kasu honetan, zuriaketa behin betikoa izango da.	- Si la persona beneficiaria dejara de cumplir los requisitos, se liquidará la subvención con el abono de la mensualidad correspondiente al último mes en el que los cumplía. En este caso, la liquidación será definitiva.
11. Dirulaguntzaren ordainketa.	11. Pago de la subvención.

Dirulaguntzaren ordainketa gauzatuko da hileroko maiztasunez, dagozkion ordainagiriak aurkeztu ondoren.	El pago de la subvención se efectuará mensualmente, una vez presentados los correspondientes justificantes de pago.
12. Dirulaguntzaren zuriketa.	12. Liquidación de la subvención.
2026 urteari dagozkion dokumentu guztiak aurkeztu ondoren, dirulaguntzaren behin-behineko zuriketa egingo da. Behin betiko zuriketa, aldiz, 2026ko errenta aitortpena aurkeztu ondoren egingo da.	Una vez presentada toda la documentación correspondiente a 2026, se realizará una liquidación provisional de la subvención. La liquidación definitiva se hará una vez presentada la declaración de la renta de 2026.
Errenta aitortpena bat badator aurreikusitako laguntzarekin, zuriketa behin betikoa izango da. Ez baleator bat, 2027 urtean birkalkulatu egingo da. Litekeena da jasotako laguntza itzuli behar izatea, partzialki edo bere osotasunean.	Si la declaración de la renta coincide con la ayuda estimada, la liquidación será definitiva. En caso contrario, se recalculará en el 2027. Pudiera ser que la persona beneficiaria de esta ayuda tuviese que devolverla, parcial o íntegramente.
13. Beste dirulaguntzekin bateragarritasuna.	13. Compatibilidad con otras subvenciones.
Deialdi honetan emandako dirulaguntzak helburu berarekin ematen diren beste dirulaguntzekin bateragarri ezinak izango dira.	Las ayudas concedidas en esta convocatoria serán incompatibles con otras ayudas destinadas para el mismo fin.
Salbuespen gisa, laguntza hauen onuradun izan ahalko dira gizarte bazterketa eta muturreko beharrak leuntzeko bakarkako dirulaguntzen onuradunak eta Etxebizitzako Prestazio Osagarria jasotzen dutenak.	Como excepción, podrán recibir estas ayudas quienes perciban ayudas individuales para paliar situaciones de exclusión social y extrema necesidad y quienes perciban la Prestación Complementaria de Vivienda.
Bi kasuetan, alokairurako dirulaguntza hauek izaera osagarria izango dute 8. klausularen arabera lagun daitekeen gehieneko zenbatekora iritsi arte.	En ambos casos, estas subvenciones para alquiler tendrán carácter complementario hasta llegar al importe máximo de ayuda según la cláusula 8 de esta convocatoria.
14. Klausula gehigarria.	14. Cláusula adicional.
Deialdi honetan jasotzen ez diren gai guztietan Arrasateko udalaren dirulaguntzak ematea eta kudeatzea arautzen duen ordenantzan ezarritakoa izango da aplikagarria, Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak garatu duen erregelamendu eta bat datozen gainerako lege arauetan ezarritakoa.	En todo lo no recogido expresamente en la presente convocatoria, se estará a lo dispuesto en la ordenanza reguladora de concesión y gestión de subvenciones del ayuntamiento de Arrasate, la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, el Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, que aprueba el Reglamento de la Ley General de Subvenciones y demás disposiciones legales concordantes.